



Alizia Olazabal

Alizia Olazabal Irunen jaio zen 1969ko irailaren 7an. 2005ean hasi zen mendi-

lasterketetan lehiatzen eta ondo hasi ere, Aizkorriko maratoian lehen emakumezko euskalduna izan baitzen eta Euskadiko kopa ere eraman baitzuen, Aloña, Lakuntza eta Izaban txapeladun gertatuz eta Baigorri bigarren postua erdietsiz.

Marka haiek ikusirik, 2006an Euskal Selekzioarako deia egin zioten. Urte hartan Berako maratoiardia eraman zuen eta Munduko kopan 8. postua lortu.

2007an Euskadiko txapelketa eskuratu zuen, Beran lehen postua ez ezik errekorra ere ezarrita. Sabiñanigon ospaturiko Espainiako txapelketan 3. postua lortu zuen eta Euskadiko taldea txapeladun gertatu zen. Munduko kopan 6. postua eta Aizkorriko maratoian 5.a izan zen Alizia. Sarako lasterketan ere txapela eskuratu zuen.

2008an ere denboraldi itzela egiten ari da, txapeladun gertatu baita Adarramendin, Beran eta Aloñako igieran...



EUTSI NESKA!

EGUNERO bezalaxe, gaur ere mendira joango gara entrenatzera. Igandea denez, ordea, ez dago prisarik eta baldintza bakarria eguraldiak jartzen du. Iganeroko entrenamendua izaten da niretzat goxoen. Alde batetik, erlojuari begira egon beharrik ez dugulako eta, bestetik, leku desberdinetara joateko aukera naturaz disfrutatzeke modu bikaina delako.

Gaur entrenamendu luzea tokatzen zait. Hala ere, oso azkar pasatzen zait denbora konpainia onean joaten naizelako, hots, Josebarekin eta Elur izena duen txakurrarekin. Haiei esker, entrenamenduak eramangarriagoak egiten zaizkit, beti animatzeko, entzuteko eta, beste zenbaitetan, nirekin batera sufritzeko prest egoten direlako.

Mendian entrenatzera joateak askatasunerako eta gozatzeko grina sortzen ditu nigan. Gainera, hau guztia etxekoekin konpartitzeko aukera hain ohikoa ez dela kontuan harturik, aitortu behar dut benetan zorte ona daukadala.

Beste aldetik, entrenatzera joaten naizenean buruan helburu bat izaten dut: hurrengo lasterketaren erronka. Azken finean, lasterketetan parte hartzeak egiten ditu entrenamenduak erakargarri eta zentzuzko. Ni lasterketak ondo prestatzen dituzten horietakoa naiz. Edo horretan saiatzen naiz gutxienez. Eta horretantxe jartzen ditut gogoak eta ahaleginak. Neure buruarekin gustura egotea eta disfrutatzea helburu bakarria izanik, hobekuntza bilatzen dut beti. Baina ez da beti erraza, egun guztiak ez baitira berdinak eta lasterketa bakoitzaren aurra baldintza asko daudelako: gorputzaren egoera, eguraldia, lasterketaren ibilbidea... Baldintzak gure alde daudenean, paregabeak dira izan ditzakegun bizipenak eta sententzioak.

Duela hiru urte esperientzia berri baten gisara hasi zena, gaur egun ohitura bilakatu da. Nire lehenbiziko lasterketak Euskal Herrikoak izan ziren: Adarramendi, Aloña, Izaba, Lakuntza, Baigorri... eta dagoeneko, bi urte daramatzat munduko kopan lehiatzen. Ezin deskriba daitekeen esperientzia da hau: eliteko kirolariak ezagutu, haiekin korrika egin, beste korrikalari asko ezagutu, leku berriak bisitatu eta, batez ere, lagunak egin. Bizipen eta esperientzia zirraragarriez beteriko ibilbidea izan da niretzat.

Mendi lasterketa hoberenatariko bat datorkit orain burura: Zegamako. Horretan izan ditudan bizipenak eta sententzioak errepikaezinak

dira. Irteeran nabaritzen dudana urduritasuna, ziurgabetasuna -zer gertatuko ote den-, poztasuna eta begirunearen arteko nahaste izugarria. Inurriak sentitzen ditut sabelean gora eta behera baina, ez dakit nola, korrika hastearekin batera sententzio hauek guztiak alde batera utzi eta lasterketari ekiten diot jo eta su. Hasierako kilometroetan hankak pixka bat astun sentitzen ditut. Sufrimendua tokatzen dela onartu behar da eta erritmo egokia lorturik, zeruan bezala sentitzen naiz. Lasterketa luzea denez gero, indarrak neurtu behar izaten dira. Aratz gailurrera iristean,

han bildu ohi den jendetzak emandako animoak oso dira eskertzeak: aupa neska!, eutsi, eutsi! Zail da momentu horietan eritmoa ongi kontrolatzea. Burua hotz eta argi mantendu behar da. Aurrera jo ahala, gorputzak ongi erantzuten badu, ziurtasuna hartuz joaten da. Hala delarik, aurrera eta eutsi!. Santi Espiritu ermitara hurbiltzean, ikusle gehiago antzematen da, urrundik entzuten baitira animoen burrunba eta oihiak. Honek "subidoitxo" bat ematen digu. Hurrengo erronka aurrean dugun Aizkorri da. Harriz beteriko ibilbidea da hau, tarterik arriskuetsuena segur aski. Baina badakit lasterketa erdia egina dagoela eta indarrak izanez gero, Urbiatik amaieraraino, azkar joateko aukera egoten dela. Indarrak gordetzeko, ezin dugu ahaztu, gogoz kontra bada ere, jan-edana ere

behar dugula, beti neurri egokian. Aizkorriko gailurrerako bidearen gogortasuna, jendearen presentzia eta animoek leuntzen dute. Helmugarainoko azken kilometroetan, gogora etortzen dira tropelka atzean utzi ditugun entrenamendu gogorak, bizipen onak eta txarrak, asteburuko bidai azkarrak, egindako lasterketak... Helburua betetzear dago: Aizkorriko lasterketa ondo egitea eta disfrutatzea, postu ona lortzea bai lasterketan eta bai munduko kopan. Helmugaratzean sentitzen den poztasuna izugarria da.

Aurtengo denboraldia ere ilusioz eta gogoz beterikoa izango dela espero dut. Honetarako entrenatuko dut behinik behin. Eta espero dut zortea nire alde egotea. Aurtengo ametsak hemengo lasterketa batzuekin egiten ditut. Baita, iaz bezala, Aizkorriko lasterketarekin ere, aurrean "Europako txapelketa dena*" Espainiako Txapelketan parte hartzea ere dut erronka...

*Pasa den maiatzaren 25ean ospatu da froga entzutetsu hau eta Aliziak 4. Postua lortu du, izugarriko lasterketa ona eginik.□